


BALEIKE

200 pta.

70. zenb.



● Erreportajea:
Txalupamutila
eta Bidaiarien
Itsas Linea
Erregularra

● Juan Ramon
Llavori:
“Ezagutu
dudan herririk
bereziena da
tibetarrena”

● Benito
Lertxundi eta
Pablo Milanes
Nazioarteko
Musika
Jaialdian

● ...eta orain
hutsune handi bat

GEHIGARRIA:
Aita Mari Arraun Elkartearen
25. urteurrena


Urolthermik

Arotzia Metalikoa



Urolthermik
Carpintería metálica

POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko ateak eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

ERROTA

OPIL OKINDEGIÀ



*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 04 12
faksa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorronsoro

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Gorka Zabaleta

J.L. Romatet

Josu Waliño

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,

Fototeka,

Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Iñigo Garcia

Agirrezabalaga.

Eskerrak eman nahi
dizkiogu Elgoibarko
KOKOE kolektiboari
komikia argitaratzen
uzteagatik.

Argazkiak

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Imanol Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza

(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Larraul

Bidean kantatzen joaten ginen. Gero norbaitek botaka egiten zuen beti. Iritsi eta korrika joaten ginen goiko gelan koltxoi bat lortzera. Eta korrika behera, korrika eliz atarira, korrika atzeko zelaira... emozionatuta geundelako egiten genuen hainbeste korrika.

Lehenengo egun horretan ia beti makarroiak tomatearekin eta natillak izaten ziren afaria.

Kartetan, ajedrezean, partxisean ibiltzen ginen afalondoan. Eta 'Kortatu' jartzen genuen.

Goian maixuak hamar minutu ematen zizkigun ixiltzeko, baina hori ezinezkoa zen. Hortzetako pasta jartzen genion norbaiti zakuan, edo bateonbategi lo hartzen bazuen belarrietan kolpetxoak ematen genizkion eta kriston juerga izaten genuen. Beldurrezko istoriak ere kontatzen genituen. "Gasolinera batean gelditu, etzeon inorre... derrepente kotxeko tetxuan zoro bat buru batekin kristalean jotzen, bum!, bum!" edo "... azkenian ateratzera atrebitu zanian, txakurra hilda zeon!, asesinua zan eskua txupatzen ziona!".

Ikastolako umeak garenok Larraulen egin genituen lehenengo aldiz etxetik kanpora egun batzuk. Eta horrek asko balio du gero kokortutakoan kanpinarekin edo udalekuetara joatera animatzeko. Nik, adibidez, etxetik kanpora lo egiten Larraulen ikasi nuen. Txikitan desastrea nintzen eta gaizki pasatzen nuen. Gogoratzen naiz inguruko denei belarria jaten aritzen nintzela haiek ez lo hartzeko.

Hemendik omenalditxo bat hara joaten ziren amei. Beti egoten zen norbait gaixotu, sasiarte batera erori edo besoa puskatu zuena, eta primeran zaintzen gintuzten.

Azken aste hauetan, zaharregia dagoenez Larraulko baserria ixtekotan ote dauden zurrumurrua iritsi zait. Baserria berritu eta irekita mantentzera animatu nahi dut erabakia hartu beharra duen jendea. Umeentzat oso plan ederra da Larraulgoa, eta kuadrilek eta Gazte Batzordeak atera izan dioten probetxua ere hor dago.

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48



Antxoka Agirre

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



Rikardo Peña, Gobierno Vasco: 10 puntu.

Ez dira oraindik hiru urte pasa eta gure agintarien hitzak haizeak eraman ditu. Paol muturreko obra erraldoiaren justifikazio bakarra (denon poltsikotik 2.000 milioi hustu eta gero) AUTODRAGATUA izan zen. Obra eder honek sei metroko sakonera mantenduko zuela, alegia.

Zumaiarro eta Zumaiara hurbiltzen diren guztiei itsasoko bista lapurtu eta gero, beste edozein herritan sua piztuko zuen obra egin eta gero, berriro draga sartu behar dutela jakinarazi digute.

Hiruzpalau xehetasun gogorarazi nahi genituzke:

- Euskal Herriko Auzitegi Gorenak barrako obra legez kanpoko dela adierazi zuen.
- Argiak jarri zirenean, barrako proiektuan oinarritutako beste edozein obra, argizatzea barne, legez kanpoko zela ere gogorarazi zigun Auzitegi berak.
- Obra erraldoia egiterakoan, arrazoi nagusia berriro ez dragatzea zela argi eta garbi utzi ziguten alkateak eta "Puertos"eko arduradunak, hitz hauek erabiliz:

"zortzi urtetik behin dragatu behar den portua desastrea litzateke", eta gainera 100 milioi kostatuko litzateke. Rikardo Peñak Herri Irratian.

Zumaiakoa hiru urtetan hiru aldiz dragatu dute eta obrak 2.000 milioi suposatu zuen.

"Después de esta obra no hay arena suficiente como para poder llegar a la situación de poco calado anterior". Puertos. Dena asmatu zuten.

- Legez kanpoko ekimen hauek Justiziarri barre eginez aurrera bultzatzen dituzte eta ez dirudi erantzukizunik eskatzeko gai den inor dagoenik gure Autonomia Erkidego eder honetan. Batzokien diktadura ote?

Zumaiako Udala, "Puertos", "Medio Ambiente" eta "Costas" errudun eta erantzule zuzenak dira jakinaren gainean legez kanpo jarduteagatik. Ez ahal dute behintzat nahiko beraien menpean gauden herritarrok ezarritako legeak onartzerik eta herriaren onerako ari direla sinesterik!

ZUMAIA BIZIRIK



Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309


ΔΙΖΜΑΝ-ΚΟΣ S.L.
SANEAMENDU ETA ERAIKUNTZA MATERIALAK
Iraeta auzoa z/g 78 postakutxa
Tel. Faxes: 148124
20740 IRAETA- ZESTOA



ALBAITARITZA KLINIKA
DIEGO SAN SEBASTIÁN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-
Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean
Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

dekorazioa
ALBERDI
• Eskaiola
• Pladur-a
696 726188
943 143261

Alberdi
Gizonezkoen moda
Erribera kalea, 6
Tel. 861155




ANA
ETXEKO ZAPIAK
Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

...eta orain hutsune handi bat

Egun bat besterik ez zen behar izan mende bat baino gehiagoan zutik egon zen eraikuntza historiko bat bertan behera botatzeko. Goizean goiz lanean hasi eta egun amaierarako Arbilla-ganeko zaku fabrikaren solairuan honen ondakinak besterik ez ziren geratzen. Orain mende eskas Zumaiaren industriagunetako bat zena orain hutsune handi bat bihurtu da.

Sanpedroak hasteko egun gutxi falta zirela, hilaren 26an, hasi ziren Altuna y Uría enpresa azpeitiarreko langileak "Viva España"-z ezaguna zen eraikin handia eraisten. Egun bat lehenagotik ezarriak zeuden enpresa zaharreko leihoetan eraisketaren berri ematen zituzten paperak. Goizean goiz hasi ziren langileak eraikuntza bertan behera botatzen. Lehenik eta behin, kanpoko horman zulo bat egin eta bertatik sartu zen eskabadora handi bat. Besoa luzatzen zuen bakoitzean, horma edo teilatu zati eder bat erortzen zen lurrera, hautsez osatutako laino handiak sortuz. Sabaia eusten zuen bigetako bat jo eta berehala metro karratu dezentetako teilatu zati batek lur hartzen zuen. Goiza aurrera zioan heinean, eraikuntzaren sabai guztia desagertua zegoen eta paretak botatzeari ekin zion makina pisutsuak. Paretaren gainean nabarmen ikusten zen makinaren beso luzea hormaren zati handia irentsiz. Bitartean kamioi bat bertako egurrezko biga handiak jasotzeari ekiten zion. Eraikinaren kanpokaldean ingeniari bat eskabadoraren gidariari aginduak ematen zizkion momentu



bakoitzean honek non jo eta nora joan behar zuen adieraziz.

Eraisketaren momenturik ikusgarriena eskabadora bulegoak kokatuta zeuden txapitelera hurbildu zenean gertatu zen. Amaiako plazan kokatuta zegoen jende ugariaren begiradapean, pixkanaka, txapitela eta gainontzeko enpresa guztia lotzen zituen horma zatiak kentzen joan zen makina, eta nahikoa izan zuen behin jotzeak egurrezko tramankulu guztia hauts laino baten artean erortzeko. Eraikuntzaren zati sinboliko horren erorketa izan zen herritar batzuen itxaropenei amaiera eman ziena, fabrika zaharraren zati bat mantentzearen itxaropenarena halajaina.

Hurrengo bizpahiru egunetan ondakinak jasotzeari ekin zioten Altuna y Uriakoek. Sanpedroak heldu zirenerako hutsune handi bat somatzen zen lehen Arbilla-ganeko fabrika zaharra zegoen lekuan.

Hasera batean esaten zenez, lur sail hori aparkaleku bezala erabiliko litzatele udara honetan. Erabaki ona izan daiteke une honetan herrian aparkatzeko arazoak nahiko larriak baitira, saneamendu lanez gain, hor baitabilza dozena erdi bat udaltzain multa bat bestearen atzetik jartzen. Hala ere adizkari hau amaitzen ari garen momentuan ez da inungo mugimendurik somatzen Amaiako plaza inguruan. Ez ginateke harrituko udara amaitu era sail horrek orain bezala jarraitzen badu.

◀ JUAN LUIS ROMATET

Antonio Etxabe



Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407

ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okjndegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

Katea eten ez dadin

2000 urtea. Urte mundiala! Urte Santua! Urte bipila! Baina, 100 metroka bizi beharreko urtea!

Orain 2000 urte, jai zuen demokraziak. Zakurrak katua, katuak xagua, xaguak xomorroa... hori zen lege bakarra. Jai zuten eskubide guztiek...!

2000. urtean demokraziari esker, munduak aurrera jo omen du nabarmen... Leikena!

Gaur, putre, saizuri, bela, mika, sator ta beste, legebiltzarreko lege konplikatua medio, lasai eta gizen bizi dira denak. Habiak ere zuhaitzetan ahalik eta gertuen kokatzen zaizkie, 100 metro baino gertuago. Euren kontra jotzeak isun latza du... Eta ez dago gaizki hori dena.

Ordea, bazterrean, ziegaren batean, zauriz jositako gizon-emakume gajok jai dute 2000. urte demokrata honetan. Demokrata betidanikoez ez dute ametitzen inongo laguntzarik, inolako "samariar" bihoztunik zauritu gajoengana arrima dadin. Artez zaintzen dituzte "kutsatu guztiok", apartean gordeta, herriko habi propiotik ahalik eta urrunen... Gu, ordea, 100 metro eta 100 metro, denak hurbiltzeko prest!

Legeak lege omen dira: Segun non eta norentzat... Neurri "galindoar" lasa-lasa batzuentzat, ketemotz estu-estua besteontzat... Hori da demokrazia!

Hitza omen da, herriaren hitza batik bat, sakratua eta guztiz errespetagarria. Eztarria kraskaturik dabil euskalduna, aspaldian. Hitza janda majo gizendu denik bada bazterretan. Baina, ez; herriaren mintzoarentzat, ez dago behar beste belarri...!

-Hitz egin da Legebiltzarrotan presoen eskubideez... Norentzat, ordea?

-Bilboko kale beteak eman du hitza, behin eta birritan... Nork jaso du?... Biba la demokrazia?

-BATERAK hamabostero bildutako jende sorta guztiek, isilean, hor egiten dute berba ozen asko... Inork egin al dio jaramon zipitzik ere?

-Presoen Solidarioek, Sevillan Giraldilla, Zeutan Olentzaro, Langraitzen zintzilik, Madrilen, Parisen, Cadizen Nieto



zenaren ohe ondoan, Santiagon... umorez eta ozenki egin dute berba... Dena alferrik!

-9 hilabete luzeko gose-greba etenbako isila, urez ongi purifikatua... Eta?... Garizuma luze honek ez al du Pazkorik?

Hau dena ez al da herriaren hitza, hitz sakratu eta errespetagarria, populu-hitza, demo-hitza...?

Hau dena, ordea, "gauerdiko ahuntzaren eztula"ren pareko hartu izan da Parisen!

Hau dena tamalez, "zakurraren putza"ren pare hartu izan da Madrilen!

"Samariar" saiatu guztien ahaleginetan, 100 metroka lehiatu gara, 100ka eta aleunka, kilometro asko eginez.

Bestela ezin bada, sakabanatuak, 100 metroka, sokatira etengabe, hurbilduko ditugu etxera. Hiru laurdenen legeak ez daki euskaraz. Preso gaixo eta ezinduen legeak ere ez daki, ez daki euskaraz. Sakabanaketa medio, erdale-rietan zehar ibili beharrez, euskara ahaztu zaio legedi osoari. Guk gogoratu nahi izan diogu demokraziari, 2.000 bider, eta behar bada, beste 2.000 bider akordura ekarriz, ozenki: euskal herritarron hitza, hemengo populuaren hitza, hemengo demoaren hitza ez del jateko! Demokrata betidanikoez omen direnek, Parisen nahiz Madrilen, entzun bezate, belarri duinik badute, mutu geldituko ez den herri honen hitza: Mesedez, Euskal Presoak, Euskal Herrira, zuen demokraziaren izenean!



AUTO-ESKOLA





- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 861018



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Presoen eskubideen aldeko martxa nazionala Zumaian

Pasa den ekainaren 10ean Iparraldeko Baigorri herritik atera zen euskal presoek eskubideen aldeko martxa nazionala uztailaren 17an heldu zen Zumaia. Eguraldi kaxkar baten menpe, Zumaiaiko 30 talde eta pertsonaia inguruk eraman zuten martxa honetako lekukoa herri osoan zehar. Beheko Plazan izan zen ekitaldi berezi batek eman zion amaiera Zumaian aldarrikapen honi.

Martxa honen bidez euskal presoek eskubideak aldarrikatu nahi izan dira, hala nola, euskal presoek Euskal Herriratzea, kondenaren hiru laurdenak beteak dituzten presoek kaleratzea, gaixo edo ezindutako presoak kaleratzea, etab. Martxak euskarri berezi bat izan du: presoek eskubideak eta herri honen hitza irudikatzen zituen lekukoa. Lekuko hau ziega baten barruan egon da eta herri batetik bestera kamioneta

batean mugitu da, bere atzetik kotxe karabanak abiatuz. Herri bakoitzera heltzean, lekukoa ziegatik atera eta eskuz esku ibili izan da herri bakoitzeko ibilbidea betez. Ibilbide hau 100m-ka banatu da, eta zati bakoitza herriko taldeek bete dituzte.

Martxa Nazionala ekainaren 10ean atera zen Baigorri herritik eta uztailaren 29an Bilbon amaitu aurretik, Euskal Herri osoa zeharkatuko du. Arazoak ere izan ditu, hala nola, Nafarroan goardia zibilez inguratuta joan behar izan du, eta bertan "bahitu" dute lekuko orijinala. Halako zerbait gertatzea posible zela eta, testiguaren egileak beste bat prestatuta zeukan badaezpada ere.

Zumaia martxa uztailaren 17an heldu zen. Ordurako herriko 29 talde eta pertsonaia, Baleike barne, "Katea eten ez dadin" manifestuari (alboko orrialdean irakurri daitekeena) bere

añxikimendua eman zioten, hauek arduratuko zirelarik lekukoa herrian zehar eramaten. Lekukoa eskuz esku eraman zuten artean politika, gizarte, lan, kultura eta kirol arloko hainbat talde zeuden, eta baita herriko pertsonaia batzuk ere.

Txalapataren doinuekin arratsaldeko 7.15 inguruan eman zitzaion irteera herria zeharkatu zuen martxari. Beheko plazatik irtenda, poligono aldera jo zuen lekukoak, Itsas kiroldegi ingurura heldu arte. Han arraun taldeak lekukoa hartu eta traineruan eraman zuen moilara, bertan beste talde batek euskarria hartu zuelarik. Horrela, talde bakoitzak 100 metro eginda, eta herri guztia zeharkatu ondoren, berriro Beheko plazara heldu zen. Plazan ekitaldi berezi bat izan zen Jon Maia bertsolaria aurkezle zela. Ekitaldi horretan lehenak parte hartzen Zarauzko dantzariak izan ziren, eta bertan zeuden guztiei agurra eman zieten. Jarraian Mantxi eta Joseba Zulaikaren txanda izan zen. Bakoitzak bizpahiru bertso abestu ondoren, Maite Golmaio, Xabier Kalparsororen amak hartu zuen hitza. Martxa honen manifestua irakurri ondoren, euskal presoek egoeraren berri eman zuten. Ekitaldi honi amaiera abesbatza batek eman zion.

Lekukoa berriro ere ziegan sartu ondoren, Martxa Nazionala beste herri batera abiatu zen, eta bertako biztanleek aldarrikapen hau errepikatuko zuten.

◀ JUAN LUIS ROMATET



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel: 861433
Faxa: 861067

Igogailuak jartzeko diru partida bat onartu du Udalak

Azken urte hauetan egin diren etxebizitzita guztiek dute igogailua. Klaustrofobia sentitzen ez duten denek maite duten zerbitzua. Galdetzea besterik ez dago zortzigarren pisu batean bizi den norbaiti butano bonbona igotzen ari den momentuan. Hala ere, makina bat etxe dira Zumaian igogailurik ez dutenak. Sarritan, gainera, etxe hoietan bizi diren biztanleak edadedun jendea da, behar-beharrezkoa duena igogailu bat bere etxebizitzara heltzeko.

Hori dela eta, pasa den ekainaren 22an izan zen Udal Plenoak diru kopuru bat onartu zuen momentu honetan igogailurik ez duten etxebizitzetan igogailuak jartzeko. Diru partida hori 8.000.000 pezetakoa izango da. Gipuzkoako boletinean oinarriak azaldu bezain laisten hasi daiteke Udalean eskaerak aurkezten.

Hala ere, esan beharra dago, ezingo dutela denek dirulaguntza hau jaso. Igogailuak jartzeko laguntza hori jasotzeko baldintza batzuk bete beharko dira:

- Eraikinak etxebizitzez osatuta egon beharko du, eta gutxienez bi solairu eduki beharko ditu. Eskaerak jasotzerakoan ez dira kontuan hartuko ez familia bakarrekotako etxeak, ez bi familiakoak ere.

- Eraikinek ezingo dute aurrez igogailurik izan.

- Jarrita edo jartzeko dauden igogailuen instalazio lanek 2000. urtean zehar emandako udal lizentzia izan beharko dute.

Emandako dirulaguntzek ezingo dute aurrekontu babestuaren (BEZa barne) %20 gainditu, ezta 1.500.000 pezetako kopurua ere. Aurrekontu babestu hau

lortzeko igogailuaren instalazioaren aurrekontuari koefiziente zuzentzaile bat ezarri beharko zaio: eraikinaren solairu eta etxebizitzaren kopurua, igogailuaren edukiera, zailtasun arkitektonikoak izatea, etab.

Esan bezala urte honetarako 8 milioi pezetako diru partida onartu du Zumaia Udalak. Jasotako eskaeren kopuruak diru partida hori gaindituko balu, Udalak dirulaguntzak banatzeko momentuan eskaera bakoitzaren interesa aztertuko du, eta behar handiagoa duen etxeari dirulaguntza emango dio.


Eskaerak egiteko epea datorren irailaren 30ean amaituko da. Zeure etxean igogailua behar baduzu, eta eskaera egiteko informazio gehiago nahi baduzu, Hirigintza sailaren bulegoetara jo dezakezu.



Emakume ekintzaileak

Hori da Estatuko Aldizkari Ofizialean berriki (2000/06/27) argitaratutako dirulaguntza deialdiaren izenburua. Horren bidez, Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak emakumeak beren kabuz lan munduan sartzea sustatu nahi du. Laguntza hauen emakume oneradunek, ordea, baldintza batzuk bete behar dituzte: bata, beren lanpostua 1998ko urtarri-laren 1etik 2000ko ekainaren 27ra bitartean sortzea; bestea berriz, lanpostu hori "lan hobi" berrietakoa izatea.

Dirulaguntza denbora tarte horretan izandako honako gastu hauetarako ematen da: enpresa abian jartzeko gastuak (tasak, notariotza gastuak eta abar), gastu arruntak (argia, ura, telefonoa eta abar), pertsonaleko gastuak (ordainsariak, dietak eta abar) eta jardueraren funtzionamenduari eta garapenari dagozkion gastuak (alokerak, material suntsigarria eta abar). Ondasun higigarri nahiz higiezinak erosteko inbertsioek ez dute dirulaguntzarik.

Eskaerak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa da, deialdia BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Dirulaguntza hori eskatzeko Urola Kostako Udal Elkarteko Enpresa Sustapenerako sailera jo dezakezu laguntza eske. Horretarako 943 89 41 84 telefonora deitu eta hitzordua eskatu behar duzu. Enpresa Sustapenerako sailaren egoitza berria honako helbidean dago: Enpresa Gune, Zuberoa kalea 20-22, behea.  **JUAN LUIS ROMATET**

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
french
euskara
englantí
español
catalonian
suomi
basc
català
finnoo
francés
anglés
catalán
francés
castellano
finnish
inglés
baski
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko enropa eta artisautza



Basadi, 3



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

Javier Fernandez Ferrerasesek irabazi du Zumaiako argazki lehiaketa



Pasa den hilaren amaieran aukeratu zen urte honetako Zumaiako Argazki Lehiaketako irabazlea. 36 argazki aurkeztu ziren XII. ekitaldi honetara eta hauen artean, epaimahaiak Javier P. Fernandez Ferrerasi eman zion lehen saria. Zumaiarrentzat prestatutako lehiaketan Javier Carballo izan zen irabazlea.

Dozena bat argazkilari aurkeztu ziren aurtengo argazki lehiaketara. Aipatzekoa da argazki munduan dezenteko fama duten autoreek hartu

dutela parte, herritik kanpo lehiaketa honek izen nabarmena hartzen ari den seinale.

Lehiaketa nagusian parte hartu nahi zuten argazkilariek bete behar zituzten arauak oso sinpleak ziren: argazkia zuri-beltzean izatea eta laborategiko trukaje guztiak zeuden onartuak. Lehiaketako gaia librea zen.

Lehiaketako epaimahaiak hiru argazkilari ospetsuk osatzen zuten: Juan Joxe Agirre Landa, Jose Ramon Larrañaga Larrañaga eta Angel Izpizua Gutierrez. Erabakia ekainaren amaieran hartu zen. Han zeudenek aitortu digutenez, nahiko lan zaila izan zuten epaileek, gehienbat azken bost argazkietara heldu zirenean, bost lan haiek oso maila handia baitzuten. Azkenean, eta erabakiari buelta asko eman ondoren, Zumaiako Argazki Lehiaketaren lehen saria Javier P. Fernandez Ferreras bizkaitarrentzat

izan zen, alaba protagonista duen "Izaro" lanagatik. Bigarren sariaren jabe Andres Indurain Gutierrez irundarra egin zen "Bodegón (violín)" argazkiagatik, eta hirugarren saria Miguel Angel Ceberio de Leon oreretarrarentzat "Molino" argazkiagatik.

Javier Carballo zumaiarretan onena

Aurreko urteetan bezala, beste sari bat ere banatu zen. Zumaiarrei zuzendutako sari honetan gaia "Kirola Zumaiarretan" zen eta formatoa diapositibak.

Hiru argazkilarik hartu zuten parte: Juan Ramon eta Luis Llavori, eta Javier Carballo. Aurkeztu zituzten bederatzi diapositiben artean, epaimahaiak Telmo Deuna protagonista zuen Javier Carballoren argazkiari eman zion sari berezia. ◀ **JUAN LUIS ROMATET**

BALEIKEK LANGILE BAT BEHAR DU, EGUNEAN 4 ORDUZ ARITZEKO

Eginkizunak: irailetik aurrera administrazioko kontuak zuzendu eta koordinatzea, harpidetzak eta publizitatea barne.

Betebeharrak:

- * Pertsona dinamikoa
- * Harremanetarako erraztasuna
- * Euskara-maila ona
- * Ordenagailua ondo menderatzea

Kontuan hartuko dira:

- * Zumaiarra izatea
- * Antzeko zereginetan eskarmentua edukitzea

Eskaintzen dena: Soldata finkoa, Ordutegi malgua

Interesatzen bazaizu utzi zure curriculuma Forondan edota Taosa liburu-dendan abuztuaren 3a baino lehen. Abuztuaren erdi aldera idatzizko proba bat egingo da.

BALEIKE

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

S

DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI

Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

**EGUZKI
PUB**

Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A, 2-B



Txalupamutila eta Bidaiarien Itsas Linea Erregularra

Migel Manterola dugu txalupamutila. Edo hala aritu da berrogeita hamar urtetik gora udaro bere batelean jendea Santiotik Abaskal ondora eta Abaskal ondotik Santiora karriatzen.

Migelek utzi ondoren semea, iloba, eta Etxabe Gabaraindarrak ibili ziren urte banaka batzuetan, eta duela lau bat urte txalupamutilik gabe geratu zen Urola. Bidaiarien Itsas Linea Erregularra aurten jarri da martxan Kaiargi enpresaren eskutik. Inbentuaren izena ez ezik, lehengoak eta gaurkoak badituzte beste diferentzi batzuk.

Hainbeste urte txalupamutil ibilia, Santio eta ibaiaren inguruko kontu guztiak dakizki Migel Manterolak. Esaterako, Santiora joan eta bainutxo bat hartzearena ohitura berri samarra omen da Zumaian. "Santio oso salbajia zeon gu umiak ginala, eta inor ez zen joaten hara bainatzera" kontatzen digu. "Santioko lenengo 'bañista' Mariano dalako bat izan zan, zaragozinoa, 'Joyeria Agüeras'eko nagusia. Gerra aurretik ari naiz. Gero Astorkitarrak, Sorianotarrak eta halako batzuk hasi zian. Gerra ondoren turistak, frantsesak batik bat. Eta

herriko jendea bastante beranduago" dio.

Lehenengo txalupamutila bere anaia zaharrena Joakin izan zen. Gutierrez familiak bere txanelaren kargu jarri zuen txanpon batzuen truke ontzia zaindu eta familia ibaitik hara eta honera ibiltzeko. Inguruko familia aberatsei ideia gustatu eta beste anaiak hartu zituzten lan berdinerako. Ibaiaren alde batetik bestera geroz eta mugimendu handiagoa zegoela ikusirik, ordaintzen zuen guztia batetik bestera karriatzeko euren

batela erostea erabaki zuten Manterolatarrek.

Hogeita hamarreko hamarkadaren bukaeran hasi ziren lan honekin. Urte batzuetara anaiek utzi egin zuten eta bera bakarrik egin zen batelaren kargu. Tailerlean jefeari hiru hilabeteko baimena eskatu eta urtero txalupamutil lanetan pasatzen zuen udara. "San Fermin inguruan hasten nintzen eta irail erdialdera arte, egunero goizeko hamar eta erdietan hasi eta eguerdiko hiru eta erdiak arte" dio Migelek. Arratsaldean ez

zuen lanik egiten. "Hasiara batean jendea arratsalde oso gutxi joaten zalako plaira. Ez zen ohiturarik. Goiza plaian pasa, bazkaria berandu egin, arratsaldez pasiatu eta gaeuz dantzaldiren batera joatea izaten zan ordun udako plana. Gerora hasi zen jendea bazkalondoren joaten, baina niretzat txalupamutilarena 'jobi' bat zen lana baino gehiago eta ez nuen arratsaldetik inoiz jarri" esplikatzan du.

Santioko eskoilerako eskaileratetik Abaskaleko eskaileratara egiten zuen hasieran ibilbidea, baina Alberto Soriano medikuak esanda Abaskalen hurrengo eskaileratara aldatu zen gero, bidea motzagoa baitzen.

Eskailera hauetan egoten zen lagun batekin berriketan harik eta norbait agertu arte. "Oraingo berri honek hogeit minuturo ematen du buelta; neu, berriz, jendea zegoenean bakarrik mugitzen nintzen" esplikatzan du diferentzia. Beduarako eskurtsioak ere egiten zituen.

"Bastante jende ibiltzen zen, baina batik bat Zarauzko ikasle jende batek ohitura handia zuen Zumaira bizikletaz etorri, geuk jarritako pare bat bateletan Beduara joan eta hango 'tortillapatatas' famatuarekin hamaiketako egitekoa" kontatzen du.

Lehenengo batelak 'Dolores' zuen izena. "Anguletan paseik gabe harrapatu eta kendu egin zidaten batel hura" gogoratzen du Migelek. Gero 'Arritxu' izeneko batela hartu zuen, 8 metro eslora eta 4 tostarekin. "Nahiko batel haundia zen eta hamalau lagun ere sartzen ziren. Argazki bat badaukat Frantziako familia numerosa batekin ateratakoa; hamar seme-alabak, amona eta gurasoak pasa nituen" akordatzan da irribarrez. Hau ere paperik gabe ibili zuen. "Guk ez genuen inoiz baimenik eta holakorik eskatu. Segurua egin izan nahi nuen, baina bi hilabeterako ez zidan inork hartu nahi" dio.

Sorosle lanak tartean

Batelarekin jendea batera eta bestera karriatzea lan neketsua izan arren oso gustora ibiltzen zela dio. Beti etortzen

zen lagun koadrilaren bat eskaile-ratara eta antxoia edo atun latak eramaten genituen jateko. Batzuetan kitarra ere ekartzen zuen norbaitek eta bainuak hartu, mokadua egin, kitarra jo... ambiente polita edukitzen genuen" kontatzen du. Bestalde jende mordoia ezagutu zuen udaran zehar hondartzara behin eta berriro pasatzetik. "Bi edo hiru generazio ezagutu ditut txalupamutil lanetan. Azpeitiko festetara joan eta alabarekin dantza egin banuen, aurretik hamaika dantza eginak nituen amarekin" kontatzen du parrez.

Pertsonaia ilustre batzuk ere eraman ditu bere batelean. "Osabarekin birritan eraman genuen Ortega y Gasset, 'filosofo y librepensador', gizona elegante askoa. Edo baita 'Doctor Pozuelo' ere, Doctor Marañonen sustitua. Abaskalen pasatzen zuen udara eta sekretaria eta guzti etortzen zen bere 'consultas por escrito' famatuak egiteko..." dio.

Une latzak pasatzea ere tokatu zitzaion. Istripu bakarra izan zuen berrogeita hamar urtean, "Bergarako andre bat behar baino lehenago salto eginda uretara erori zitzaidan" gogoratzen du, baina garai haietan sokorristarik ez zegoenez dezentetan joan behar izan zuen jendea uretatik ateratzera. "Paoleko andreak abixatzen zigun, eta Itzurunen bazan elizako kanpai bat zegoen norbait uretan larri zebilela abisatzeko. Hamaika apuro pasa deu, larri danak olarrua bezela heltzen baitu eta soltatu ezinik..." dio. Erremedio kurioso askoak ere bazituzten zaurientzat: "Marea bizietan behean zeonian askotan pasatzen zan 'bañistak' hondar azpian dagoen arrai txiki bat zapaldu eta honek benenoa, oso mingarria izaten dana, ziztatzea. Guk basauntzan adarra erabiltzen genuen harekin arraskatuaz odola atera eta gero enplastua egiteko. Gaur egun amoniakoarekin egiten da" esplikatzan du.

68an 'Junta de Salvamento' sortu zen olatu batek herriko gazte batzuk eraman ondoren eta hark emandako



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 25 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaia plaza, 15
Tel. 862458

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etxezarreta, 6 Tel. 861078

Amertxe

**profesionalak gara
etor zaitez!**

Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 - 143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ikastaroen ondotik sorospen zerbitzua jarri zen Zumaiako hondartzetan. "Aurrerapen haundia ekarri zuen horrek, lehen askoz jende gehiago itotzen zan" dio Migelek.

Tailerrean jubilatuta arte, 91ra arte jarraitu zuen Migelek udarero bere batelarekin. Bera erretiratu zenean semeak jarraitu zuen bi urtetan. Sorosle sartu zen gero eta Joakin lehengusuari utzi zion postua. Horrek udara bat egin zuen. Hurrengo bi urteetan Etxabe Gabaraindarrak aritu ziren, tartean arreba bat, Zumaiako lehen txalupaneska. Duela lau urtetik hona, ordea, inork ez du lana hau bere gain hartu nahi izan. "Arritxu" bera ere aurten eraman genuen desguazera. San Juan bezperatan erre genuen" dio Migelek pena pixkatekin. Orain motora berri batekin irteten da itsasora, 'Arritxu II'a.

Bidaia-arien Itsas Linea Erregularra

Usurbilgo enpresa bat da Kai-Argi. Enpresa berria da, joan den urteko apirilean jarri zuten martxan, eta bertako arduradun batek azaldu duenez, pixkanaka ari dira zabaltzen: Kontxako badian bi motora dituzte 'Club Nautico'arekin lanean, urazpiko arrantza egiteko ontziak alokatzen dituzte, asistentzia teknikoa eman zenbait portutan eta abar.

Zumaian 'Nuestra Señora del Carmen' motora jarri dute kirol portua, Santillana kaia, eta Santio hondartza bitarteko ibilbidea egiteko. Hamaika metroko ontzia da, hogeita hamabi lagunentzako tokiarekin eta goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara hogei minutuero irteten da puntu

bakoitzetik. Prezioei dagokionez, txartel arruntak 150 pza. balio ditu, joan etorrikoak 250 pza., eta Turismo Bulegoan bi bono mota daude: astekoa 1.400 pza. eta hilekoa 3.000 pza.

Euren ekimenez jo dute Udalera proiektuarekin, eta hemen oso gustora hartu dute, txalupamutilek eskaintzen zuten zerbitzuaren galerak utzitako hutsunea bete dezakeelakoan. Pantalán berriak bat Zumaiako Udalak eta bestea Eusko Jaurlaritzako Portuen Sailak ordainduak dira, baina gainerakoan finantzaketa guztia euren gain gelditu da.

Ekainaren hasieratik jarri nahi zuten martxan ontzia, baina papeleoak, aseguruak, zergen ordainketa, eta baimenak ekainaren 30era arte atzeratu ditu. Bi pertsona dituzte enplegatuta eta hirugarren bat supletziak betetzeko. Hirurak ere patroiz titulazioarekin.

Kai-Argiko arduradunak azaldu digunez, ekain hasieratik irail erdira arte egunean batez beste 100 pertsonatik gora mugitu beharko lukete proiektua errentagarria izateko. Orain arteko egunetan oso jende gutxi ibili omen da, baina edozein modutan aurten galerak izatea aurreikusten omen zuten. Azaldu digunez aurtengoa proba urtea da. Beren aurreikuspenetara hurbiltzen badira datorren urtean ontzi berri bat sartuko dute Beduarako, eta bidaiak egingo dituen. Itsasoa oso ona dagoenean flisch-etarainoko irtenaldiak ere egingo lituzke unti horrek. Azkenik, Zumaian turismoak bizi duen gorakada eta kirol portuko esplanadan egingo den aparkalekua aipatu dizkigu apostu hau egitera animatu dituen faktore nagusi bezala.

ANTXOKA AGIRRE





elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antena - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777




KAFETEGIA
GAROA
JATETXEA

TXOMIN AGIRRE KAIA
TEL. 943 86 21 81

Juan Ramon Llavori

“Ezagutu dudan herririk bereziena da tibetarrena”

Juan Ramon Llavorik hilabete egin zuen joan den urrian Indian dauden errefuxiatu tibetarrekin. ‘Medicus Mundi’ko lagun batzuk eskaini zioten argazkilari joateko plana, organizazioak bertan egiten duen lana ezagutarazteko. Tibetarrek erabat txunditu zuten Juan Ramon eta haien irudiz betetako 4.000 diapositiba ekarri zituen bueltan. Orain, Sardañola del Valles-ko nazioarteko argazki lehia-ketan ‘el acueducto de plata’ saria eman berri diote diapositiba horiekin egindako lan bategatik. Eta abuztuan berriro Himalaiara doa.



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g

Tel. 860959

3 Nola sortu zitzaizun bidaia hau egiteko aukera?

Duela hiru urte Perura egin nuen bidaia batean 'Medicus Mundi'rekin lanean ari ziren euskaldun batzuk ezagutu nituen bertan. Perura ere nire argazki kamerarekin joan nintzen, lagun horiei gustatu egin zitzaaien egin nuen lana.

“Inglesik ez jakin arren primeran komunikatu naiz eurekin”

Iazko udan Indian dauden errefuxiatu tibetarren egoera eta 'Medicus Mundi'k bertan egiten duen lana islatzeko argazkilari joatea proposatu zidaten. Lana interesgarria iruditu zitzaidan, aspalditik nuen tibetarren herria ezagutzeko gogoia, eta, halaxe, baiezkoa eman nien.

3 Zenbat egun egin zenituen han? Zein tokitan izan zinen?

Irailaren 25ean irten nuen. Bilbotik Londresa eta hemendik Delhira hegazkinez. Delhin arratsaldea bueltaka pasa nuen Daramshalara eramango ninduen autobusaren zain. India iparraldeko hiria da hori, 200.000 biztanle dituena. Bertan dago tibetar errefuxiatuen asentamendu nagusia, 15.000 lagunekoa, eta bertan dago Daklo Tang-a ere, Dalai Lamaren tenplua.

Hamahiru orduko bidaia begirik itxi gabe egin ondoren, bideak oso txarrak baitira han, Pedro Rodrigez gasteiztarra eta Irene Txurruka Bartzelonan bizi den donostiarrak, biak medikuak, egin zidaten harrera, eta handik kilometro gutxitara dagoen Dehl

herrixkako erietxera eraman ninduten.

Erietxe hori izan da nire etxea Indian egin dudan hilabetean. Gero ateraldi asko egin ditut medikuekin batera inguruko beste asentamenduetara: Dulanghi, Camrao, Satum, Simla, Purwala, Bupur... Indiako ipar-ekialde guztian eta erdialdeko zona batzuetan ibili gara batera eta bestera.

3 Eta zer moduz?

Ba, zoragarri. Herri harrigarria ezagutu dut, eta lagun onak egin... Gero momentu txar batzuk ere pasa izan ditut, erietxean ezaguturiko gaixoren bat hiltzerakoan; indiar poliziekin papelak zirela eta arazo batzuk ere izan nituen... Baina ba... oso bizipen fuertea eta ona izan da niretzat. Deseatzen nago bueltatzeko.


3 Kontatuko al diguzu pixka bat nolako bizimodua zeneraman han.

Goizeko 5etan jaiki, gosalduta eta medikuak lanera, eta ni haien atzetik. Bidea anbulantzia batekin egiten genuen askotan, eta bestela

autobusez. Oso bide txarrak ziren, hemengo mandobideak bezalakoak, harriztarrez beteak, askotan amildegien ertzetatik eta lur jauziekin. Nahikoa beldurtuta joaten nintzen ni, aparte tibetarrek oso gidari txarrak baitira, baina inoiz ez genuen istri-purik izan.

Asentamendura iritsi eta medikuen kontsultan argazkiak ateratzen nituen edota nire kontura joaten nintzen bazterrak miatzera. Bazkaria 12etan izaten zen. Familiaren batek hartzen gintuen bere etxean, eta euren jatekoa geurekin banatu. Nahikoa eskasian bizi dira, arroza jaten dute ia egunero eta ez dira hemengoak bezalako jatordu ugariak, baina sukaldari onak dira eta saltsa goxoak egiten dituzte, eta oso eskuzabalak dira, batzuetan eurak kasik ezer gabe geratzen ziren guri ematearren.

Bazkalondoan tea hartzen zen. Bakoi-tzari mahaitxo eta katilu bana ateratzen zitzaion, eta azken egunetako gertakariez, euren familiaz,



ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6 Tel. 943 14 33 95

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

eguneroko bizitzaz... berriketan egoten ginen patxadan.


Eta arratsaldean medikuen lanaren arabera bertan gelditu, beste asentamendu batera mugitu edo Dehl-eko erietxera itzultzen ginen.

Gauerako normalean erietxean egoten ginen, baina batzuetan asentamenduetan ere pasa genuen gaua. Asenta-

mentu bakoitzak etxe bat gordetzen du atzerritarrak bertan hartzeko.

■ Nolakoak dira etxe horiek?

Kubikulo moduko batzuk. Errefuxiatuak dira eta pobreak. 15 metro karratutan sartzen dituzte sukaldea, oheak eta etxerako behar dituzten guztiak eta familia osoak bizi dira espazio txiki hauetan.



Detalle eta apaindurak ere badauzkate. Ateak marrazki sinbolikoez apainduriko izareekin tapatzen dituzte etxea espiritualki babesteko. Oso ederrak dira izara hauek.

■ Nolako harremana izan duzu tibetarrekin?

Oso polita. Ingelesez oinarrizko hitz batzuk bakarrik dakizkit eta hara joan aurretik bastanteko muga izango zela iruditzen zitzaidan, baina behin hara iritsitakoan, ez dut kasik behar izan. Garbi dago ingelesarekin komunikazioa aberatsagoa dela, eta medikuak inguruan nituenean interprete gisa laguntzen zidaten. Baina nire laupabost hitzekin eta keinuekin ere primeran konpontzen nintzen. Gero barrearekin ere asko komunikatu naiz. Oso herri alaia da tibetarrena.

Egunero nire kamararekin han nenbilen, nahikoa ezaguna egin nintzen azkenerako eta lagun asko egin nituen. Batzuekin, hamar bat edo, Zumaiara itzuli naizenean harremanetan jarraitu dugu, eskutitzen bidez. Nahiko lan izaten dut ingelesarekin...

Faltsukerian edo istorio arraroekin doanari azkar ixten diote atea, baina natural ibiliz gero, familiako bat bezala hartzen zaituzte. Eta baita monjeek ere. Guztiz irekiak topatu ditut. Euren errituarekin parte hartzen utzi zidaten eta beti egoten ziren edozertara irekiak.

■ Nola deitzen zintuzten?

'Uanra', 'j' esateko arazo handiak zituzten.

Bitxikeri moduan esan agurtzerakoan eskuineko eskua eman behar zaiela. Ez daukate komuneko paperik, oso garestia baita, eta uraz eta ezkerreko

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabrilari eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

eskuaz garbitzen dute ipurdia. Horregatik ezkerria luzatzea irain bat da eurentzat, eta ezkerrekin jatea, noski, debekatuta dago.

B Nola ikusten duzu tibetarren etorkizuna?

Zaila. Ez zait iruditzen beren lurretara bueltatuko direnik. Duela urtebete Txinari Hong-Kong eta Makao itzuli zaizkio eta momentu egokia izan da eurei Tibetaren inguruan konponbide bat eskatzeko, baina ez da ezertxo ere entzun. Badakizu, Txina merkatu garrantzitsua da... Hala ere, tibetarrak ni baino optimistagoak dira. Konfiantza haundia dute Dalai Lamarengan. 77ra arte borroka armatua egin zuten. Haiek ezagututa zaila da horrelakorik imajinatzen, armiarma bat zapatarekin hil eta bronka botatzen baitizute, baina, eurek dioten lez, Txinak ez zien beste aukerarik utzi. Gero EEBBen laguntza bukatu eta borroka horretarako aukerarik ere ez zitzaien gelditu. Gaur egun nazioartean beren arazoa ezagutarazi eta apoioak bilatzen zentratu dira erabat. Euren eskolak eta antolakuntza ere modernizatzeke ahalegin handia ari dira egiten.

Drama izugarria da tibetarrekin gertatzen ari dena; bai beren lurretan eta bai erbestean oso egoera txarretan bizi dira, Txina beren lurrak kolonizatzen ari da, beren kultura suntsitzen...baina nik uste nolabait baduela bere alderdi positiboa ere. Txinak 49an inbaditu zituen arte, erabat isolatuta bizi zen herria zen tibetarrena. Erbesteak eta nazioartera jo beharrak ireki beharra ekarri du, eta gordeta zuten aberastasun guztia konpartitzea. Kriston barne bizitza



daukate, harrigarria da tokatu zaizkien kalamitateen karga zer erraz daramaten, eta gorputzaren ezagutza ere gu baina askoz landuago dute. Beste altxor bat naturarekiko jarrera da. Izugarritzko errespetua diote naturari.

“Ez dut uste euren lurretara itzuliko direnik”

B India eta Tibeterako bidaia hauek zenbaitetan barrenean ‘ukitzen’ omen dute bidaiaria. Zuri zein efektu egin dizu?

Bueno, balio izan dit konturatzeko askotan hemen ditugun keak eta kezak ez dutela fundamenturik. Haien eskemak eta indarra ikusita ziurtasun bat eman dit neure barruko bizitzarekin. Eta Tibeta hobeto ezagutu eta gehiago ikasteko gogoia sartu zait.

B Gainera sari bat eman berri dizute han ateratako diapositibengatik.

Duela egun gutxi jakin dut. Sardañola del Valles-eko nazioarteko argazki lehiaketako bigarren saria eman didate, ‘el acueducto de plata’. ‘Gizakia XX. mendean’ zen gaia eta indiarrei buruzko ‘Bizitzaren koloreak’ 28 diapositibatako lana bidali nuen, joan den udazkenean Zumaian eta Donostian erakutsi nuena. Amerikar batek atera du lehenengo saria, gero nik eta hirugarrena italiar batek, eta hiruron lanekin zabalkunde handiko liburu bat aterako dute. Poz ederra eman didate.

B Berrito ere hara joateko asmotan omen zabilta.

Bai, abuztuaren 26an irtengo naiz eta irailaren 30ean bueltatu. Beste toki batera noa oraingoan, Himalaian, 3.500 metrotako altueran dagoen Ladak izeneko monastegi tibetar batetara. Lagunak berrito ikusi, errezu batzuk egin eta tibetarren inguruko lana osatu nahi dut datorren urtean pare bat erakusketa egiteko.

◀ ANTOKA AGIRRE



XVI. NAZIOARTEKO Musika Jaialdia



Abuztuaren Iean hasiko da aurtengo Zumaiako Nazioarteko Musika Jaialdia. Jaialdiak irauten dituen hamabi egun horietan zehar, herria musika doinuez beteko da. Atzerriko hainbat gazte hurbilduko dira Zumaiara Ubillos jauregian izango diren ikastaroetan

parte hartzera. Zumaiako txoko askotan musika entzuteko aukera izango da, baina, dudarik gabe, garrantzi handiena izango duten bi ekitaldiak Jaialdiaren hasieran eta erdi aldean aurkituko ditugu. Abuztuaren Iean Benito Lertxundi oriotar

abeslaria arituko da Maria eta Joseko oholtza gainean. Hilaren 6an, aldiz, Pablo Milanés kubatar kantariaren txanda izango da ibaiaren beste aldeko moila berrian. Aste hauetan musika onaz goza dezazuela!

TXOKO ABERNA

Artadi auzoa
Tel. 862189

AROTEGIA
Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

xirula

Argazki eta bideo erreportaiak
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705

ILEAPAINDEGIA
IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 860760

GIZARTEKINTZA zentru soziala
KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

Benito Lertxundi: Orioko bardo

1942. urtean jaio zen Benito Lertxundi Orioko herrian eta oso gaztetatik zaletasunak zein intuizioak bultzaturik ekin zion musika interpretatu eta konposatzeari; euskal kantagintza zaharra eta egungo doinuak betidanik uztartzen jakin duen musikaria dugu Benito.

Bere ibilbide musikal luzeko aldi guztietan, sorkuntzarako espazio libre eta zabala eratu du, bertan elkartuz hainbat mundu desberdin: epikoak eta erromantikoak, tradizional eta fantastikoak, guztiak ere egilearen ukitu pertsonalez ziprztindurik. Lertxundik sen berezia du sormenerako, zeru-sabaian zabaldutako arrakala baten antzera erreka emaro eta bare bat isurtzen duena, giza sentimenduz, jainkozko ametsz eta kantu eder miragarritz osatua.

Benito Lertxundi euskal kantagintzaren suspertzailetako bat izan zen 60ko hamarkadan, eta oraindik ere Euskal Herriko abeslari ezagun, karismatiko eta garrantzitsuenetako bat da.

1971. urtean lehen albuma argitaratu zuenetik, diskotik diskora. Ideia musikal eta poetikoen sakontasunera jo izan du, konbenientziak eta formalidadeak alde batera utzita. Gaurkotasunez beteriko doinu bizi, zoragarri eta amaigabeak izan ditu helburu. Sentimenduz osaturiko disko iraunkorak, betidanikoak eta betirakoak.



Benetako hilezkortasunaren bila ibili izan balitz bezala.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatutako "Auhena sinfonikoa" da Benitoren azken diskoa, heldutasuna eta bizitasuna uztartzen jakin duen Lertxundiren erronka da, gure izatearen sinfoniak berezko dituen korapiloak argitzeko eta askatzeko.

Orkestra oholtza gainean kabitzen ez zela eta, Benito bere taldearekin agertuko da Zumaian, kontzertu

bikaina eskainiko duenaren itxaropenarekin.

Pablo Milanés: Iraultzaren aurpegia

Pedro Pablo Milanés izenarekin Kubako Bayamo herrian 1943an jaioa, oso gaztetatik ibili izan da musika munduan. Sei urterekin lehen sari bat irabazi eta amaren bultzada jaso ondoren La Habanako giro musikalean sartu zen. Irrati eta telebista estudioetan bere lana eskaintzen ibili ondoren, Kubako Iraultzaren leher-

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

ileapaindegia
I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 862083

Kontzertuen Zerrenda

ABUZTUAK 1

22.30etan, Maria eta Josen, **Benito Lertxundi**

ABUZTUAK 2

11.00etan, Maria eta Josen, **Haurren Kontzertu Pedagogikoa**

22.00etan, San Pedro Parrokian, **San Pero Abesbatza**

ABUZTUAK 3

22.30etan, Aita-Mari kafetegian, **Kafe Musikala**

ABUZTUAK 4

22.00etan, San Pedro Parrokian, **Irakasleen Kontzertua**

ABUZTUAK 6

21.30etan, kirol portuko moila berrian, **Pablo Milanés**

ABUZTUAK 7

22.30etan, Goiko tabernan, **Kafe Musikala**

ABUZTUAK 8

22.00etan, Mari plazoletan, **Laborategia**

ABUZTUAK 9

22.00etan, Maria eta Josen, **Laborategia**

ABUZTUAK 11

22.00etan, Maria eta Josen, **Ganbera Musika Lehiaketa**

ABUZTUAK 12

22.00etan, Maria eta Josen, **Jaialdiko Orkestra**



ketak Pablo Milanés gaztea erakarri zuen.

Soldaduska Iraultzailean parte hartu bezain laster hasi zen Milanés musikari profesional lanetan, lehenik eta behin Cuarteto del Rey taldean eta ondoren bakarlari bezala. Silvio Rodríguez-ekin batera Kubako Iraultzaren aurpegi ezagunetako bihurtuta, eta Nueva Trova Cubanaren ezaugarri nagusietako bat bezala, buru-belarri ekin zion garai eta leku hartako

musika eta letrak aldatzeari, Kubako musikaren berritzaileetako bat bihurtu zelarik Bayamoko trobadorea.

Kantari oso maitatua da Pablo Milanés, bai Kuba bertan eta bai uhartetik kanpora ere. Sentsibilitate handiko abeslari eta konposatzailea, trobadore zahar eta berrien arteko elkargune bat izan da Pablo Milanés. Urte hauetan guztietan Iraultzari abestu izan dio, han eta hemengo iraultza txikiei: maitasuna, samur-

tasuna, maitatu eta bizitzeko poza, etab.


Orain gutxi kaleratu du disko berria Pablo Milanések. Disko horretatik kanta ugari abesteaz gain, entzulegoak hain maite dituen kantu ezagunak ere ziur entungo dira Urola Ibaiaren itsasoratzean. Musika munduko pertsonaia mitiko bat izango dugu gure herrian abuztuan, ez da gutxi!

◀ **JUAN LUIS ROMATET**

julio curiel
PELUQUERO
G
Gizonezkoentzat
ileapaindegia
Erribera kalea, 23

Larrañaga
Juanjo
HARATEGIA URDAITEGIA
Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak
Erribera kalea, 20




Pulpoko jubenil bat Espainiako selekzioan

Peru Fernandez
Arroiabek
Espainiarekin jokatu
du nazioarteko torneo
bat Suedian

Denboraldia amaitu eta gero ere eskubaloia albiste onak ematen ari zaigu. Peru Fernandez Arroiabe jubenilak Espainiako selekzioaren deia jaso eta Suedian izan da nazioarteko torneo bat jokatzeko. Zumaiar gazte honek bost egun eman zituen Guadajajaran konzentratu, eta gero beste bost Suedian jokatzeko, eta "oso pozik" itzuli dela adierazi digu. "Maila handiko torneooa izan da, eta azkenean bosgarren postuarekin konformatu behar izan dugu" azaldu digu. Kadete mailan zegoenean, jokalaria onena aukeratu zuten Euskadirekin Espainiako Txapelketa jokatu zuenean.

Lauko bi multzotan banatutako zortzi selekzio hartu zuten parte Suediako

B. Exegarai 2., behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

ZALLA
Taberna - Erreategia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL. 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



kalari

- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517



KABI
TABERNA - ZUMAI
Tel. 143379



Kresala
— edergintza —

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

torneo horretan. Espainiaren multzoan, Danimarka, Norvegia eta Polonia zeuden. Bestean, Alemania, Suedia, Islandia eta Kroazia. "Gure multzoa bestea baino askoz gogorragoa zen, zalantzarik gabe. Multzoko lehenengo biak sailkatzen ziren finalerdietarako, eta gure multzoan Danimarka eta Polonia pasa ziren. Finala bien artean jokatu zuten, eta azkenean Danimarkak irabazi zuen".

Espainiak bi finalistekin gol bateko aldeaz galdu zuen, eta Norvegiarekin berdindu. Peruk lehen partidua titular jokatu zuen, baina gero apenas izan zuen aukerarik: "Lehen partidua ia osorik jokatu nuen, eta ondo ibili nintzela uste dut. Pare bat gol egin nituen, eta aurkariak buruz buruko defentsa ere egin zidaten. Baina gero, bigarren partiduan pare bat minutu baino ez nituen jokatu, eta beste bietan deialdian ere ez ninduten sartu". Peruk ez dio azalpen arrarorik bilatu nahi erabaki horri. "Aurkariak fisikoki oso ongi prestatuta zeuden. Mutil handiak eta indartsuak ikusi ditut txapelketa horretan, eta ni erasoan baino ez nintzen aritu", esan digu Peruk. Gorputza gehiago landu behar zuela esan zioten selekzioan, "goiz eta arratsaldez pisuak jasotzeko", baina bera ez dago astakeriak egiteko prest.

Peru pozik dago torneoan egindako lanarekin, baina ez du berriro selekzioaren deia jasotzeko esperantza handirik. "Datorren urtean Europako Txapelketa da, eta oraingoz 35 jokalaria gaude 16ko selekzioa osatzeko. Fisikoki izugarrizko aurrerapena ez badut egiten ez dut uste berriro deituko didatenik", esan digu. Peruk aurtengoa zuen azken denboraldia jubencil mailan, baina azaldu digunez, European beste urtebetez luzatu dute kategoria hori, eta teoriarik izango luke Europako Txapelketan izaterik.

Espainiako selekzioan talde handietan dauden jokalariai ezagutu ditu. Bidasoako Julen Aginagalde (Gurutxategiaren anaia) bertan zen, eta han ziren baita Bartzelona, Granollers, Ciudad Real eta Ademarreko zenbait jokalaria. Batzuek zenbat milioitako klausulak omen dituzte jada, eta kontratu profesionalak. Berak ordea, datorren denboraldian Pulpon jokatzeko asmoa du. "Lehen Mailan jokatzeko ez da gutxi, eta nahikoa lan izango dugu kategoriari eusteko, jende askok utzi baitu taldea". Arrasaten egingo ditu ikasketak, eta bere iritzi oraingoz nahikoa eta gehiegi izango du Zumaiaren jokatzearekin.

◀ GORKA ZABALETA

Oier Aizpurua, azkenean Olinpiadarik gabe

Gogor egin du lan azken urteotan Oier Aizpurua piraguista zumaiarrek Sydneyko Joko Olinpikoetan parte hartu ahal izateko, baina azkenean bere ametsa bertan behera gelditu da. Azken unera arte Espainiako selekzioak prestatutako K-4an sartzeko aukerak izan ditu, baina Espainiak azkenean ez du ordezkari-tzarik izango kategoria horretan. Iazko Munduko Txapelketara ez joatea erabaki zuen Espainiako Federazioak, orduan sortutako zenbait istilu medio (Oierrek berak azaldu zizkigun, Baleikek egindako elkarrizketan), eta orduan txartelik gabe gelditu ziren. Hala ere, beste bide batzuetatik lauko piraguarentzat txartela lortuko zutelakoan ziren federazioko buruak, baina ez da hala izan. Oierrentzat kolpe handia izan da dudarik gabe, baina gaztea da oraindik, eta 2004. urtean Atenasen izan daiteke. Azken urteak Galizian kontzentratutako eman ondoren, orain Zumaiara itzuli da, familia eta lagunekin egon, eta Itxas Gaina goigoian egoten laguntzeko.



KUKUTZ
serigrafia
*kamisetak
*txiskeroak
*paperezko poltsak, e.a.
baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69



AIZPURUA
R
U
D
E
N
D
A
Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569



LEIZE
taberna
Juan Belmonte, 6 Tel. 860415




Loitz
* Eskola eta bulegorako materiala
* Enkoadernazioak
* Fax publikoa
* Aldizkari eta opariak
Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422



malaur



Maite
ileapaindegia
KÉRASTASE PARIS
Tel. 143278



Iban Iriondoren denboraldi paregabea

Iban Iriondo txirrindulari gaztea denboraldi izugarria egiten ari da. Bigarren mailako kadetea da, eta aurten jadanik bederatzi garaipen lortu ditu, jokatutako 13 lasterketetatik. Alebinetan hasi zenetik, 20 dira zumaiair honek erdie-tsitako garaipenak. Ciclos Beristaineko txirrindularia da, eta mundu guztia aho zabalik uzten ari da. Gipuzkoako Txapelketan bigarren izan zen, eta Euskadikoan, berriz, hirugarren. Esprinterra eta igotzaile ona da. Lasterketa gehienak esprintean irabazi ditu, baina era berean lau aldiz irabazi du mendiko saria. Oraindik bide luzea du aurretik egiteko, baina etorkizunean jarraitu beharreko mutila da.

Enbil eta Bereikua berriro Euskal Herriko txapeldun

Gotzon Enbil zumaiairak eta Julen Bereikua berriatuarrak Euskal Herriko zesta txapelketa irabazi dute, bigarren urtez jarraian. Joan den igandean jokatu zuten finala Andoni Arriaga eta Felix Espillaren aurka, eta 35-23 irabazi zuten. Markinako pilotalekua jendez gainezka zegoen Arriaga etxeoari animoak emateko, baina txapeldunek partidu bikaina jokatu zuten, eta aurretik izan ziren hasieratik. Errenta eroso samarra izan zuten beti, eta iaz baino errazago lortu zuten bigarren txapela, orduan hiru partidu jokatu behar izan zituzten eta.



liburuak
aldizkariak
CDak
komikiak
eta
fantzineak

ERRIBERA 10
TEL: 943 86 21 14

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituztenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

gidatzeko baimen guztiak



P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416

ile-apaindegia



ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO c.b.
ELEKTRIZITATEA

- ALARMAK
- ANTENAK
 - .Banakakoak
 - .Kolektiboak
 - .Satelite bidezkoak
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK
- ETA ABAR...

Axular, 14 Tel. 860074 - 861569

uztaila

XIII ARTE ERAKUSKETA

Hamairugarren edizioa betetzen duen Arte Erakusketaren barne bi erakusketa eskainiko dira Oxford aretoa:

- **Nerea Zapirain** artista urnietararen lanak ikusgai

- ▶ Uztailaren 27tik abuztuaren 15a bitartean
Oxford aretoan

- **Igor Zendoia** zumaiarraren lanak

- ▶ Abuztuaren 18tik 31ra bitartean
Oxford aretoan

. Hauetaz gain beste ekitaldi batzuk ere izango dira XIII Arte Erakusketaren barne.

LIBURU AURKEZPENA

Arritokietako amabirjinen koroazioa ospatu zenaren maiatzean betetako 70. Urteurrena dela eta, argazki erakusketa eta gertakariak jasotzen dituen liburuskaren aurkezpena izango da.

- ▶ Irailaren 1ean, arratsaldeko 7etan
Oxford aretoan

CAROLINE ETA MIXEL-EN KANTALDIA.

- ▶ Uztailak 22, larunbata. 22.30etan,
Beheko plazan

UDAL MUSIKA BANDAREN UDAKO KONTZERTUA

Debako Bandarekin batera.

- ▶ Uztailak 29, larunbata. 23.00etan,
Beheko plazan

HAUR ANTZERKIA:

Behi Bi's taldearen "**Bertsotas**".

- ▶ Uztailak 30, igandea. 18.30etan
Beheko plazan

II. KALEKO PINTURA TOPAKETA.

- ▶ Abuztuak 15, asteartea. 9etatik
14.00arte,

UDAKO ROCK KONTZERTUA.

- ▶ Abuztuak 19, larunbata.

ZUMAIAKO "EUSKAL FESTAK-1900"AREN URTEURREN OPAKI-ZUNAK

- ▶ Irailak 2, larunbata, egun osoan zehar.

Jarraitzen duten
ikastaro eta
zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA**LIBURUTEGIA**

Helduentzat

- ▶ Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta
16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

- ▶ Astelehenetik ostiralera, 16.00 -
20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- ▶ Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Helduen liburutegian.

- ▶ Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta
16.30 - 19,30

ttikittaka



haur oinetakoak

BALTASAR ETXABE Z/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIÀ

TXALAPARTA

O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIÀ
GIPUZKOA Kalea, 33 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40




TXINGURRI
Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiroi zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balarazioak

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIÀ

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

Nerea Uranga

Etxezarreta, 19 Tel. 862342

ULER-600

ULER 600

- Denborarekin baino gehiago presarik gabe izan zen. Asteburutan.

- Gauzak sartu, ez zuten balio, gero kendu, gero beste nahasketa bat...

- Ez da estudio batean gertatzen dena, prezio baten arabera egiten dituzula orduak, hemen nola ekipoa Inarena zen, ez zegoen arazorik. Horrek bere abantailak eta alde trarrak ditu; eta txarrena da ez duzula inoiz amaitzen. Eta adibidez, Ina bezala, lan gehien egiten duen jendeak azkenean pixkat erreta amaitzen duela.

- Gehien erretzen duena da zuk zerbait egitea, ondo dagoela pentsatu, eta gero guztiekin elkartu eta ados ez daudela, orduan berriro aldatzera...

- Igual kanta bat nahasten 2-3 ordu pasa, gero Ina etortzen zen eta "esto es una puta mierda"...

- Egia esa, Inak kriston lana egin du. Nik kritikatu bakarrik egiten nuen.

- Hori ondo dago, hori ere egin behar da.

- Beti ezinezko gauzak eskatzen etortzen zitzaidan: kendu makil zarata hau hemendik, kendu beste hori,...Ze uste duzu dela hau, Abbey Road estudioak edo?

Analogikoa vs. Digitala

- Dena izan da analogikoa. Gauza batzuetarako zailagoa izan da.

- Dena askoz normalagoa da. Gero nahasketak Tio Pete estudioetan egin genituen.

Bestalde diskoan sinte, efektu eta organo asko daude. Hori gero nola eraman behar duzue zuzenera, normalean bi gitarra erabiltzen badituzue?

- Zuzenean bertsio desberdina egiten dugu. Saiatzen gara ahalik eta fidelena egiten, baina ahal den neurrian.

- Instrumentu gutxiago etabiltzen ditugu, taldeko laurok bakarrik gaude jotzeko: gitarra/ahotsa, teklatuak/gitarra, baxua eta bateria.

- Planteamendu ezberdinak dira, zuzenean askoz gitarroagoak gara, rokeragoak. Diskoa estetika psikodeliko batean egin nahi izan dugu.

- Grabaketan 16 pistak topera daude, gu lau gara, gero zuzenean ezinezkoa da. Adb. hiru organo kanta batean, baxua efektuekin, instrumentoak estereoa, ahots bikoitzak...

- Momentu berean nahastu dira batetik diska bat grabatzea eta bestetik grabatzen ikastea bera ere bai. Bukaeran esan dugu ja: KOÑO! Baina ordurako diskoa amaitua genuen. Esperimentazio asko egon da, baina hurrengorako dena askoz sinpleagoa izango da.

- Beste kanta bat ere sartu nahi genuen, letrak X. Montoiarenak ziren, bere liburu batean azaltzen zirenak. Albertok egin zuen kantua, baina azkenean baimen kontuak zirela-eta ezin izan dugu sartu.

Komenta itzazue piskat letrak. Bat dago euskaraz, ez?

- Bai, hala da.



Vodka con limón. Esan behar da grabazio garaian gehien erabili genuena vodka con limón izan zela. Beste era batean hasi zitekeen baina honela hasten da Uler 600 taldearekin izan genuen elkarrizketa Beheko plazan plater konbinatu batzuen aurrean. Ohiko galderak ez genizkien egin: adib. nondik datorren Uler 600 izena edo zergatik abesten duten ingelesez (horiek Devorame edo Ruta 66en galdetuko dizkiete). Grabagailua martxan jarri eta beraiek nahi zutenari buruz hitz egin zuten.

Grabaketa

- Grabaketa batez ere hiru saiotan izan zen: lehenengoa ezertarako balio izan ez zuena, beno ikasteko balio izan zigun, gero beste bi saio, eta hortik hartu ditugu gauzak. Lehenengo base erritmikoa grabatzen genuen eta gero denborarekin ahotsa, gitarra bat eta abarrekoak sartzen genituen.

Nikol  Enea
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
 Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

- Ina da gure poeta. Zeloan zegoen garaikoak.
 - Ez, egia esan, beti egiten ditut letra tipo bera. Oinarrian kantu bakoitzak gauza batez dihardu, baina ez dute botellazoez eta horrelakoetaz hitzegiten. Esperientzi inter-galaktikoak, esperientziak drogekin eta horrelako gauzak.

- Surrealista samarrak.
 - Sentsualak.

Zergatik ez dituzue jarri idatzita konpaktoan?

- Beno, ingelesez dira eta aurretik egindakoaren arabera, jendeak ez die garrantzi handirik ematen, uste dut normalean jendeak ez dituela irakurtzen.

- Letrak arriskutsuagoak dira, ze musika gustu kontua izan daiteke, leterekin ordea jendea kritikoagoa da, bestalde pasatzen dira bi hilabete eta leterek zentzu guztia gal dezakete.

- Hori idazten duenarentzat, baina irakurtzen duenarentzat desberdina izan daiteke.

Kolaborazioak

- Debako neska bati (Miren Aperribairi) eskatu genion kolaboratzeko saxoa joaz eta egia esan oso maila altua du, gu "en bolas" lagatzen gintuen. Hiru kantetan lagundu digu.

- Gero Cebri-k ahotsak sartu ditu eta Anak (Perezez) ere bai. Hasieran nik (Inak) oso gaizki kantatzen nuen, eta uste genuen neskaren bat edo bilatu behar genuela kantatuko zuena... orain ja zerbait mejoratu dut.

Eraginak

- Esaten dute diskoa nahiko iluna dela. Nik entzuten dut musika ikuna: Joy Division, The Cure...

- Pink Floyd, hasierako Pink Floyden eragina ere izan dezakegu, Syd Barrett-ena; ahotsa erabiltzeko orduan edo kantua eramateko eran.

Hala ere Euskal Herrian ez dago antzeko musikarik egin duen talde askorik, ez? Cancer Moon edo Los Bichos izan daitezke.

- Bichos? Ez dakit, hasieran baginen Cancer Moon-en antzekoagoak, baina begira orain zerk irten duen.

- Asko aldatu gara, hasieran gitarrak eta barulloa askoz handiagoa zen.

- Kantuak garbitu egin ditugu, baxuari fuzza kenduz, etab.

- Gure ideia sorreran, talde bezala, base erritmikoa joaz zegoen jendearekin etab., ba zuzenerako zerbait agresiboa egitea zen. Inspiral Carpets eta era hortan; oso destruktiboa eta atmosfera askorekin ere bai.

- Niri bukaeran dagoen 12 minutuko kantu hori asko gustatzen zait, idatzi hori.

- Kantu hori oso zuzenekoa da, Inak asko borrokatu du kantua cd-an egoteko.

Diskoaren distribuzioa

- Diskoaren distribuzioa maketa bat bezala egingo dugu baina piskat ofizialagoa: lagunartean, taberna eta denda jakin batzuetan eta internet bidez salduko dugu.

Seiscientosa txatarrerian

Zertan dago seiscientos bat poste baten gainean airean? Eta zertan daude 1.000 tonelada titanio Ibaizabalaren alboan? A! Horrela orain Warhol ikusi dezakegu –diote batzuk. Bai, baina Warhol 60ko hamarkadako oraingoa baino gehiago. Guk 60ko hamarkadan ikono enblematorik izatekotan seiscientosa zen, eta ez Warhol edo Marilyn. Zer gehiago genuen ba? Seiscientosa eta pantanoak inauguratzen zituen gizon petral bat. Hori zen dena, gure moderotasun guztia. Eta Euskal Herrian pixkat beranduago Ez dok 13. Bitartean, Estatu Batuetan eta Ingaltarran musikan aurrerapen handiak egin ziren; drogen munduan paraleloak ziren mundu musikalak sortuaz: iheskorak, atmosferikoak, intentsoak edo guztiz bortitzak izan zitezkeenak. Uler 600ek garai hartako eraginak hartu eta gaur egungo diskurtso batera eraman ditu bere lehen disko honetan. Screaming Guy diskete independentearen bidez kaleratua, talde berak ekoiztu eta grabatu du, gero nahasketak Tio Pete estudioan eginaz. Partaideak lehenago beste talde batzuetan arituak dira (6nemen9, Po, Lili Moon) eta proiektu berriarekin jada jaso dituzte beren fruituak, Gaztemaniak cd-a irekitzen baitzuten eta 99ko Villa de Bilbao lehiaketan ere aukeratuak izan ziren. Harremanetarako: 943740113 (Alberto), eta sareko zamorroentzat: e-mail: uler600@hotmail.com eta www.geocities.com/uler600.

◀ JON MANZISIDOR

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
 Tel./Faxa: 943-143057
 Z U M A I A




Rakel
 apaindegia





kiromasajea
 tatuajeak


Aita Mari 42, behea

TEL: 943 862093






-1-
AMONA
ETA
KATUA









argazki zaharra



Nahikoa suertea izan degu! Bart gauean sirimiriaren gortinaren bestalderaino iritsi geranean, barea eta ia hotsik gabeko itsasoa, ilargia edo zeruko izarrak islatu ezinik, leizezulo bat baino ilunago zegoen. Estrobuia eta toletaren artean mugitzerakoan eta uretan sartzean arraunek ateratako soinua besterik ez genuen entzuten. Denok isilik badaezpada. Ni brankan nihoan begiak urazala baino hondoago jarrita nituelarik. Halako batean, txalupamutilari brankako harriak uretara botatzen lagun diezadala agindu diot. Antxoan ardora ederki agertu zaigu begibistan. Sarea bota eta jasoz lana galanki egin degu. Zazpigarren sarekada jasotzen ari ginela nahiko hurretik pasa den motor baten kandil-argiak ikusi ditugu. Guk ere bagenuen motor eder bat gerraurrean. Orduan, oraingo erosotasunetik urruti, despeska lana emakumeak motorrean bertan sartuta, bat bestearen kontra kabitu ezinik,

egiten zuten. Nik, oraindik txalupa mutila, han jarduten nuen emakumezkoei laguntzen, harik eta gerra piztu ondoren Zumaiara faziosoak sartu aurretik aitta bi osabekin gehi beste bi arrantzalerekin Lekeittiora motorrez alde egin beharra izan zuten arte, gure ama, bi arrebatxoak eta ni neu hemen babesik gabe geratu ginelarik. Euskal Herria defendatzera joan zirenen familiakoak izateagatik herritik bialdu gintuzten. Gorriak ikusi genituen. Motorrik gabe geratu ginen, Frankistek errekitatuta. Baina gaur jakin dut aitta Larrinaga kartzelatik laster askatuko dutela, dirudun baten laguntzari esker laster erosiko degu bigarren eskuko beste motor bat, hor zutik dagoen Bixente "Tximo"rena bezalakoa, eta a zer poza hartuko duen attak jakiten duenean!

TXOAZKIN

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA
Esther Blanco
OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA




BIDAIK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

ENBATA Bazkariak eta afariak kafetegia

• Oilasko erreak (eramateko) • Plater konbinatuak • Kaxuelitak • Parrilla •



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



berria!

XSARA

Picasso

ZUMAIA MOTOR



CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA



Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxa : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak